

BESTELAKO XEDAPENAK

ETXEBIZITZA ETA HIRI AGENDA SAILA

2242

AGINDUA, 2026ko maiatzaren 13koa, Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuarena, zeinaren bidez 63 etxebizitza baztertu eta hasiera ematen baitzaio Bilbao udalerriko Bolueta eremuan babes ofizialeko 81 etxebizitza eta Monte Eretzan babes ofizialeko 19 etxebizitza errentamenduan esleitzeko prozedurari.

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Etxebizitza horiek esleitzeko prozedurak Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak xedatutakoari jarraituko dio, zeina baita etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa; izan ere, hala xedatuta dago Babes publiko etxebizitzaren erregimen juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko martxoaren 4ko 39/2008 Dekretuaren 12. artikuluan. Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduak aldaketak izan ditu III. kapitulan (alokairuko etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren esleipenak arautzekoa), abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuaren azken xedapenetako zazpigarrenak eragindakoak; izan ere, dekretu hori baita kreditu-erakundearen eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzorua arloko finantza-lankidetzakoa, eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa.

Era berean, nahitaezkoa da aipatzea urriaren 10eko 147/2023 Dekretua, Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzkoa, zeinak, alde batetik, azken xedapenetako lehenengoan aldatu egiten baitu martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, eta, bestetik, azken xedapenetako bigarrenean aldatu egiten baitu 2012ko urriaren 15eko Agindua.

Azkenik, 2026ko apirilaren 21eko 55/2026 Dekretuak, Etxebizitzaren arloko erregelamenduzko xedapenak presaz aldatzeari buruzkoak, 2012ko urriaren 15eko Agindua aldatzen du bere VIII. kapitulan.

Bigarrena.– 2006ko maiatzaren 18an, alde batetik, Euskadiko Etxebizitza eta Lurra EA (Visesa) eta Orubide SA merkataritza-enpresaren presidenteordeak, eta bestetik, Bilboko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, etxebizitza publikoak sustatzeko Bilbao udalerriko Bolueta auzoko AR-421 arearen eremuan. Aipatutako hitzarmenaren hamaikagarren klausulan ezartzen da babes ofizialeko etxebizitzaren esleipendunek Bilbon erroldatuta daudela egiaztatu beharko dutela.

Era berean, hamabigarren klausulan ezartzen da babes ofizialeko etxebizitzak esleitzeko prozedurak etxebizitzak kalifikatzen diren unean indarrean dagoen araudia bete beharko duela eta esleipendunek urtebeteko antzintasuneko errolda izan behar dutela.

Hirugarrena.– 2012ko uztailaren 6an, Visesak eta Bilboko Udalak, bigarren aurrekarian aipatutako hitzarmena berri zuten, bakoitzari dagozkion prestazioak garatu eta zehazteko. Laugarren klausulan aurreikusita daude Bilboko Udalak eskuratu beharreko etxebizitzak. Azkenean, Bilboko Udalak Boluetako 63 etxebizitza eskuratu ditu.

Laugarrena.– 2020ko apirilaren 14an, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuak eta Bilboko Udalak hitzarmen bat sinatu zuten, Bilboko udal-mugarteko

Otxarkoaga, Bilbao Zaharra eta Miribilla auzoetan alokairuko babes ofizialeko etxebizitzak eta alokairuko etxebizitza sozialen sustapena ahalbidetzeko.

Aipatutako hitzarmenaren bosgarren klausulan ezartzen da Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak konpromisoa hartzen duela Bilbao udalerrri interesdun bakarra izendatzeko, hitzarmen honen xede diren Otxarkoaga, Bilbao Zaharra eta Miribilla auzoetako babes ofizialeko etxebizitzak eta etxebizitza sozialen sustapenean, eta udalerrri horretako herritarrek izango direla sustapen horren lehentasunezko hartzaileak.

Bosgarrena.– Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2021eko abuztuaren 17ko Ebazpenaren bidez, Bilbao udalerriko Eretza Mendia eremuko 19 etxebizitzako sustapenak araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak behin-behineko kalifikazioa eskuratu zuen. Eusko Jaurlaritzak sustatzen ditu etxebizitza horiek eta EB2-0280/21-LP-000 da espediente zenbakia.

Bizkaiko Etxebizitzako lurralde-ordezkararen 2022ko azaroaren 15eko Ebazpenaren bidez, Bilbao udalerriko Bolueta eremuko 144 etxebizitzako sustapenak araubide orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak behin-behineko kalifikazioa eskuratu zuen. VISESAk (Euskadiko eta Etxebizitza eta Lurra SA) sustatzen ditu etxebizitza horiek eta EB2-0876/22-LC-000 da espediente zenbakia.

Seigarrena.– Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailburuordetzak Boluetako sustapenari dagokion 63 etxebizitza esleipen-prozeduratik kanpo uzten ditu, hitzarmenaren arabera Bilboko Udalarri baitagozkie.

Zazpigarrena.– Agindu honen bidez esleituko diren 100 etxebizitza horietatik 4 egokituta daude mugikortasun urri iraunkorra duten desgaituentzat, bi logelakoak dira eta 69,28 m² eta 80,84 m² bitarteko azalera dute. Gainerako 96 etxebizitzetatik, 1 logela bakarrekoa da eta 55,32 m²-ko azalera du; 77 etxebizitza bi logelakoak dira eta 61,5 m² eta 70 m² bitarteko azalera dute; eta 18 etxebizitza hiru logelakoak dira eta 89,04 m²-ko azalera dute. Etxebizitzak lagatzeko araubidea errentamendua izango da. Etxebizitza horiek kupotan bananduko dira seigarren ebazpen-zatian ezartzen den bezala.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuak du eskumena agindu hau emateko, bat etorrita xedapen hauetan ezarritakoekin: martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua, Babes publikoko etxebizitzak araubide juridikoari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriari buruzkoa –12. artikulua, zehazki–, eta Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua, Etxebizitza-eskatzaileen erregistroari eta babes ofizialeko etxebizitzak nahiz araubide autonomikoko zuzkidura-bizitokiak esleitzeko prozedurei buruzkoa (aurrerantzean, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Agindua) –48. artikulua, zehazki–.

Bigarrena.– Abenduaren 26ko 210/2019 Dekretuak (Kreditu-erakundeak eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko etxebizitzaren eta lurzoruen arloko finantza-lankidetzakoa eta etxebizitzaren arloko erregelamendu-xedapenak aldatzekoa), azken xedapenetako zazpigarrenean aldatzen du Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren II. tituluko III. kapitulua, 47 bis artikulua gehituz, zeinak arautzen baititu errentamendu-araubideko babes ofizialeko etxebizitzak eta zuzkidura-bizitokiak esleitzeko kupoak. Txertatu berri den 47. bis artikulua arabera, sustapen guztietan –salbu kolektibo jakin bati berariaz bideratutakoen kasuan–, etxebizitza-kupo batzuk gordeko dira honako kolektibo hauen premiei erantzuteko: desgaituak; 36 urtetik beherakoak; etxebizitza bat legez okupatzeko eskubide subjektiboaren titularrak, etxebizitza-premia berezia duten pertsonak; gainerako eskatzaileak

edo kupo orokorra. Aipatutako 47 bis artikuluko 4. puntuan adierazitako ehunekoak errespetatu behar dituzte etxebizitza-kupoek.

Era berean, 2026ko apirilaren 21eko 55/2026 Dekretuak (Etxebizitzaren arloko erregelamenduzko xedapenak presaz aldatzekoa) aldaketa bat sartu zuen 47 bis artikuluan, 2. eta 5. apartatuei eragin ziena. Aldaketa horren bidez, esleitzeko lehentasun-irizpide bat ezartzen da zenbait taldetako kide diren pertsonentzat edo bizikidetzaren unitateentzat, honako hurrenkera hau finkatuz: eskubide subjektiboa, 36 urtetik beherakoak, premia berezia eta kupo orokorra. Bestalde, 36 urtetik beherako pertsonen taldeari erreserbatutako egokitu gabeko etxebizitzaren gehieneko portzentajea ere aldatzen da, eta % 40tik % 50era igarotzen da.

Hirugarrena.– 2026ko apirilaren 21eko 55/2026 Dekretuak 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 25. artikuluko 3. apartatua ere aldatu zuen, etxebizitza babestuak esleitzeko prozeduretan parte hartzeko erroldatze baldintzei buruzkoa. Aldaketaren arabera, errentamendu erregimeneko prozeduretan, titularretako batek gutxienez hiru urteko errolda izan beharko du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Laugarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikulua, egungo erredakzioan, dio ezen etxebizitzak esleituko direla 47 bis artikuluan aipatzen diren kupoen arabera, etxebizitzaren egokitasunaren arabera eta 51. artikuluan aipatzen den baremoa aplikatutakoan pertsonak edo bizikidetzaren unitateek lortutako puntuazio-hurrenkerraren arabera. 51. artikulua horrek baremoa arautzen du kontuan izanik zein diren eskatzaileen diru-sarrerak, zenbat kide dituen bizikidetzaren unitateak, zer antzinatekin duten etxebizitza-eskatzaileek erregistroan eta nolako den etxebizitza-premia berezia.

Bizikidetzaren unitateko kide kopuruagatik ematen den puntuazioa jartzeko, kontuan izango da zenbat logela duten sustapeneko etxebizitzak. Gauzak horrela, logela bateko etxebizitzetarako: 1 puntu emango zaie bi kidez osatutako bizikidetzaren unitateei, eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Bi logelako etxebizitzak: 3 puntu emango zaizkie hiru kide dituzten bizikidetzaren unitateei, 1 puntu bi kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Azkenik, 3 edo 4 logelako etxebizitzetarako, 7 puntu emango zaizkie sei kide edo gehiagok osatutako bizikidetzaren unitateei, 5 puntu bost kidek osatutako bizikidetzaren unitateei, 3 puntu lau kidek osatutako bizikidetzaren unitateei eta 1 puntu hiru kidek osatutako bizikidetzaren unitateei.

Bosgarrena.– Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 27. artikulua zehazten du noiz den egokia etxebizitza bat kontuan izanik zenbat kidek osatzen duten bizikidetzaren unitatea eta zenbat gela dituen esleitu beharreko etxebizitzak.

Seigarrena.– Ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 5. artikuluko 4., 5. eta 6. apartatuetan zehazten da noiz egongo den gainokupatuta etxebizitza edo bizitoki bat (80/2022 Dekretua, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan etxebizitzaren eta zuzkidura-bizitokiaren gutxienezko bizigarritasun-baldintzak eta diseinu-arauak arautzen dituena).

Zazpigarrena.– Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2022ko ekainaren 30eko Aginduak zehazten du zein diren gehienez ere babes publikoko etxebizitzaren prezioak eta errentak, eta zein den zuzkidura-bizitokiaren kanona.

Zortzigarrena.– Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren azken xedapenetako lehenak martxoaren 4ko 39/2008 Dekretua aldatzen du, eta dekretu horren 19. artikuluari 3. apartatu bat gehitzen dio, zeinak babes ofizialeko etxebizitza eskuratzeko eska daitezkeen urteko gehieneko diru-sarrera haztatuen mugei eragiten baitie.

Horrenbestez, aztertu ondoren aipatutako legezko manuak, haiekin bat datozenak eta aplikagarri diren gainerakoak, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Boluetako sustapenean, 63 etxebizitza esleipen-prozeduratik kanpo uztea, Bilboko Udalari baitagozkio.

Bigarrena.– Hasiera ematea, Bilbon, Boluetan 81 etxebizitza eta Eretza Mendian 19 etxebizitza, denak ere araubide orokorreko babes ofizialekoak, errentamenduan esleitzeko prozedurari. Sustapen honen espedienteak EB2-0876/22-LC-000 eta EB2-0280/21-LP-000 dira.

Hirugarrena.– Sustapen horretako etxebizitzak lagatzeko araubidea errentamendua izango da.

Laugarrena.– Alde batetik, Etxebizitza egokia arautzen duen 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 27. artikuluari jarraituz, eta, bestetik, Gainokupazioa arautzen duen ekainaren 28ko 80/2022 Dekretuaren 5. artikuluari jarraituz, sustapenean ezin izango dute parte hartu 6 kide baino gehiagoko bizikidetzak-unitateek.

Bosgarrena.– 100 etxebizitzako esleipen-prozedura honetan parte hartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira agindu hau argitaratzen den egunean.

a) Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alta emanda egotea alokairuko eskatzaile gisa, Bilbon. Dena dela, mugikortasun urriko kupoan parte hartzen duten pertsonen parte hartu ahal izango dute, edozein delarik eskaera-udalerrira.

b) Agindu hau argitaratzen den egunean, titularretako batek behintzat Euskal Autonomia Erkidegoan errolatuta egon beharko du, gutxienez, hiru urteko antzinasunarekin.

c) Agindu hau argitaratzen den egunean, titularretako batek behintzat Bilbon errolatuta egon beharko du, gutxienez, urte beteko antzinasunarekin. Mugikortasun urriko kupoan parte hartzen duten pertsonen zein emakumeen kontrako indarkeria matxisten biktime direnek ez dute zertan bete errola-baldintza hori.

d) 2024. urteko zergaldiko diru-sarrerak haztatuak ezin dira izan 9.000 euro baino txikiagoak eta 46.463,29 euro baino handiagoak. Mugikortasun urria duten desgaituek, desgaitu psikikoek edo emakumeen kontrako indarkeria matxisten biktimek ez dituzte egiaztatu beharko gutxieneko diru-sarrerak. Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortua duten pertsonen ere ez dituzte diru-sarrerak egiaztatu beharko. Alokairuko etxebizitzak eskuratzeko, diru-sarrera konputagarrien hartzailetzat joko dira adin nagusiko pertsona guztiak, baldin eta ez bazaie judizialki aldatu gaitasuna eta bizikidetzak-unitatearen parte badira.

e) Bizikidetzak-unitateek ez dituzte izango 6 kide baino gehiago.

f) Agindu hau argitaratzen den egunean bizikidetzak-unitatea osatzen dutenetatik inork ezin du izan ez etxebizitzarik jabetzan, ez azalera- edo gozamen-eskubiderik. Dena dela, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 9 bis artikuluari jarraituz, etxebizitza-gabeziaren eskakizunari dagozkion salbuespenak aplikatuko dira; artikulua hori Etxebizitza bat okupatzeko eskubide subjektiboari buruzko urriaren 10eko 147/2023 Dekretuaren azken xedapenetako bigarrenak erantsi zuen.

Seigarrena.– Esleitu beharreko 100 etxebizitza horietatik, honako kupo hauek gordeko dira:

a) 4 etxebizitza, mugikortasun urriko desgaitasun iraunkorra duten pertsonen egokituak.

Etxebizitza horiek esleitzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2012ko urriaren 15eko 52. artikuluan ezarritako lehentasun-hurrenkerari jarraituko zaio, bat etorrita 888/2022 Errege Dekretuaren lehen xedapen gehigarrian ezarritakoarekin (888/2022 Errege Dekretua, urriaren 18koa, desgaitasun-maila aitortu, deklaratu eta kalifikatzeko prozedura ezartzen duena):

Lehenik eta behin, egokitutako etxebizitzak esleituko zaizkie desgaitasun-maila onartu, aitortu eta sailkatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskinean A letrarekin kalifikatutako desgaitasunen bat duten pertsoneri; gero, 2. eranskin horretan B letrarekin kalifikatutako desgaitasunen bat duten pertsoneri, eta, azkenik, 7 puntu edo gehiago eskuratzen dituztenei eranskin bereko D eta H bitarteko letretan ezarritakoak batuz.

Mugikortasun urriko desgaitasun iraunkorra egiaztatu duten pertsonak kupo honetan parte hartuko dute.

b) 96 etxebizitza gainerako eskatzaileen artean banatuko dira, kupo hauek errespetatuta:

– 29 etxebizitza esleituko zaizkie (sustapen honetan esleituko direnen % 30,21) 36 urtetik behe-rako gutxienez titular bat duten bizikidetz-unitateei.

– 25 etxebizitza esleituko zaizkie (sustapen honetan esleituko direnen % 26,04) agindu hau argitaratzen den egunean etxebizitza duina eta egokia legez okupatzeko eskubide subjektiboa duten eskatzaileei.

– 18 etxebizitza esleituko dira (sustapen honetan esleituko direnen % 18,75) etxebizitza-premia berezia duten pertsonen artean.

– 24 etxebizitza esleituko dira (sustapen honetan esleituko direnen % 25) gainerako eskatzaileen artean (kupo orokorra).

Zazpigarrena.– Kuporen batean egokitu gabeko etxebizitzak geratuko balira esleitu gabe dagoen multzoko pertsoneri edo bizikidetz-unitateei, etxebizitza horiekin handitu egingo litzateke kupo orokorrera bideratutako etxebizitzen kupo.

Era berean, kupo orokorreko eskaeren artetik etxebizitzarik esleitu gabe geratuko balitz, kupo bakoitzean gordetako etxebizitzak kontuan izanda, soberako etxebizitza horiek esleituko dira eskaera gehien izan dituen kupoko pertsonen artean.

Esleipen-prozedura bukatu ondoren etxebizitzak esleitu gabe geratuko balira, bigarren esleipen-atarako zehaztuta dagoen prozeduraren bidez esleituko lirateke.

Bestalde, mugikortasun urriko kupoan parte hartzen dutenen artean etxebizitza egokituak esleitu gabe geratuko balira, zuzenean bigarren esleipen-atarako zehaztuta dagoen prozeduraren bidez esleituko lirateke.

Zortzigarrena.– 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 47 bis 2 artikulua xedatzen duenari jarraituz, kolektibo bateko baino gehiagoko kide diren pertsonak edo bizikidetz-unitateak etxebizitza-kopuru handiena duen kupoko taldera sartuko dira.

Aurreko paragrafoan araututakotik salbuetsita daude mugikortasun urri iraunkorra egiaztatu duten pertsonak. Haiek beti kokatuko dira mugikortasun urriko kupoan; alegia, etxe egokitu bat eskuratzeko parte hartuko dute.

Bederatzigarrena.– Agindu honetako baldintzak eta gainerako arau aplikagarrietakoak betetzen dituzten pertsonak parte hartu nahi badute sustapen honetako esleipen-prozeduran, dagokion

eskaera aurkeztu beharko dute 2026ko maiatzaren 27tik ekainaren 10era bitartean (biak barne), bide hauetako baten bitartez:

– Telematikoki: <http://www.etxebide.euskadi.eus> webgunearen bidez.

– Aurrez aurre: Zuzenean Zerbitzua (aurrez hitzordua hartuta), Kale Nagusia 85, beheko solairua. 48011 Bilbao.

– Postaz: Bidali dokumentazioa Bizkaiko Etxebizitzako Lurralde Ordezkaritzara (Kale Nagusia 85, 6. solairua, 48011 – Bilbao). Posta administratiboa erabiltzea gomendatzen da, posta bulegoko sarrera-data kontuan har dadin.

Hamargarrena.– 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 51. artikulua dioenari jarraituz, eskaerak puntuatu egingo dira barematze-irizpide hauen arabera:

a) Diru-sarrerak: 10 puntu emango zaizkie 0 eta 10.722,29 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei; 9 puntu, 10.722,30 eta 17.870,49 euro bitartekoak dituztenei; 8 puntu, 17.870,50 eta 29.784,16 euro bitarteko diru-sarrerak dituzten eskatzaileei, eta 5 puntu 29.784,17 eta 46.463,29 euro bitarteko diru-sarrerak dituztenei.

b) Bizikidetzaren unitateko kide kopurua: Bizikidetzaren unitateko kide kopurua puntuatzeko orduan, kontuan hartuko da zenbat logela duten sustapeneko etxebizitzak. Logela bakarreko etxebizitzak: 1 puntu emango zaie bi kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Bi logelako etxebizitzak: 3 puntu emango zaizkie hiru kide dituzten bizikidetzaren unitateei, 1 puntu bi kide dituzten bizikidetzaren unitateei eta 0 puntu pertsona bakarreko bizikidetzaren unitateei. Bestalde, 3 edo 4 logelako etxebizitzetarako, 7 puntu emango zaizkie sei kide edo gehiagok osatutako bizikidetzaren unitateei, 5 puntu bost kidek osatutako bizikidetzaren unitateei, 3 puntu lau kidek osatutako bizikidetzaren unitateei eta 1 puntu hiru kidek osatutako bizikidetzaren unitateei.

c) Antzintasuna etxebizitza-eskatzaileen erregistroko inskripzioan: 1 puntu emango da antzintasun handiena duen bizikidetzaren unitateko kidearen inskripzio-urte bakoitzeko; 7 puntu emango dira gehienez ere.

d) Etxebizitza-premia berezia: 4 puntu emango zaizkie etxebizitza-premia bereziko kolektiboren bateko titularren bat duten espedientei. Desgaitasun intelektual edo garapen-desgaitasunen bat duten pertsonen eta gaixotasun mentalen bat duten pertsonen dagokienez, espedientei 4 puntu emango zaizkie, bizikidetzaren unitatean kideren bat badago egoera hori egiazta dezakeena. Kolektibo bateko baino gehiagoko kide direnei, 4 puntu emango zaizkie horietako bakoitzeko; 8 puntu emango dira gehienez ere.

Hamaikagarrena.– Baremazioa kalkulatzeko, kontuan hartuko da zer egunetan argitaratzen den agindu hau da. Berdinketarik badago, antzintasun handiena duen eskaeraren alde egingo da, eta, antzintasuna ere berdina bada, aukeratuko da zein sartu zen lehenago etxebizitza-eskatzaileen erregistroan.

Hamabigarrena.– Sustapen honetako logela bakarreko etxebizitzak esleituko zaizkie gehienez ere bi kide dituzten bizikidetzaren unitateei esleituko zaizkie. Bi logelako etxebizitzak, berriz, gehienez lau kide dituzten bizikidetzaren unitateei esleituko zaizkie. Hiru logelako etxebizitzak, azkenik, gehienez sei kide dituzten bizikidetzaren unitateei esleituko zaizkie.

Hamahirugarrena.– 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 50. artikulua idazketa berriari ezarri bezala, etxebizitzak esleitzeko orduan, irizpidetat joko da zer kupo zehazten diren agindu horren 47 bis artikuluan, eta zein den etxebizitzaren egokitzapena eta prozeduran sartutako pertsonen

edo bizikidetza-unitateek lortutako puntuazio-ordena; betiere 51. artikuluan xedatutako baremoa aplikatuz.

Hamalagarrena.– Esleipena amaitutakoan, zenbat kupo dauden, hainbat itxarote-zerrenda egingo dira, parte hartu bai baina etxebizitzarik eskuratu ez dutenentzat. Itxaron-zerrenda agortzen bada, 2012ko urriaren 15eko Aginduaren 59. artikulua idazketa berrian ezarritakoari jarraituko zaio etxebizitzak esleitzeko.

Hamabosgarrena.– Onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak, etxebizitza-esleipenak eta itxaron-zerrendak argitara emango dira Eusko Jaurlaritzaren Herritarrentzako Zerbitzuaren (Zuzenean) iragarki-oholetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko iragarki-ohol elektronikoa (www.euskadi.eus > egoitza elektronikoa > iragarki taula).

Hamaseigarrena.– Agindu honen aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakioke Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuari, hilabeteko epean; bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, bi hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan. Errekurtso biak aurkezteko epea hasiko da agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko maiatzaren 13a.

Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburua,
DENIS ITXASO GONZÁLEZ.